

## Japoniako kamishibaien arima Iruñean

Irene Arrizurieta. Iruñea.

Iruñera senarraren lanagatik etorri zen Reiko Furuno japoniarra. Hasiera batean lau urterako etorri ziren. Baina tokia eta bizimodua gustatu eta 11 urte eman dituzte. Furuno (Gifu, 1960) jada Japonian da, baina hitzeman du lagunak ikustera itzuliko dela. Joan aurretik, Iruñeko Yamagutxiko liburutegiarekin elkarlanean kamishibaien inguruan egindako lanaz mintzatu da.

Ahots ezta du eta baxu hitz egiten du, adierazi nahi duena azaltzea kosta egiten zaio. Seme-alaben hezkuntzak eraman du Yamagutxiko liburutegian kamishibaiak lantzerantz. Yuki alabaren ikastetxean, Iruñeko San Juan de la Cadena, Japoniako istorioren bat kontatzeko aukera sortu zitzaion.

Gaztelaniaz ongi moldatzen ez zenez, kamishibaiak baliatzea otu zitzaion. Kamishibaiak marrazkien laguntzarekin kontatzen diren ipuinak dira. XII. mendean Japoniako tenplu budistetan istorioak kontatzeko sortu zen modua da. Istorioa kontatzeko egurrezko agertoki txiki bat erabiltzen da, eta barruan dauden ilustrazioak mugitzen ditu kontalariak istorioa kontatu ahala. Hurrek marrazkiak ikusten dituzte eta kontalariak ilustrazioak atzean duen istorioa kontatzen du.

Bere semeak eta alabak bultzatuta, Furunok Iruñeko Yamagutxi liburutegiko liburutegian kamishibaien inguruan zerbait egitea proposatu zien. Istorioak kontatzeko era hori Japonian oso ohikoa da, eskoletan hurrei kontatzen zaizkie, baina hemen ez zuten ezagutzen. Baina liburutegian kamishibaien inguruko lanik ez zegoenez, kamishibaiak sortzen hasi behar izan zuen Furunok. Lan horretan hastean kamishibai hoberena originala dela ohartu zen. Iruñea eta Japoniako Yamagutxi hirien arteko senidetzea baliatuz, Japoniako Yamagutxi hiriko liburutegiari kamishibaiak eskatzen hasi zen. Azken bost urteetan 50 kamishibai lortu ditu Iruñeko Yamagutxi liburutegiak, eta guztiak euskarara eta gaztelaniara itzuli dituzte. Lana zaila izan dela aitortu du. Oso zaila da kamishibai bat itzultzea, ez da liburua, ez da antzerkia, ez da ohiko ipuina.

Iruñeko Yamagutxi liburutegian kamishibaiak itzultzeko eta lantzeko taldea osatu zen, baina itzulpenarekin bidean kontakizunak asko galtzen zuela konturatu ziren. Itzultzean, kamishibaiak bere arima japoniarra galtzen du, eta horretan lagundu die Furunok. Zailtasun handien onomatopeien itzulpenak ematen du. Japonieraz gauza guztiak adierazteko onomatopeiak erabiltzen ditugu. Denak du onomatopeia. Soinketa egiten duen katu baten kamishibaia itzuli berri dugu, eta pauso guztietarako onomatopeia bat zegoen. Euskaraz errazagoa da, onomatopeia gehiago daudelako, baina gaztelaniazkoa zailagoa izan da.

50 kamishibai itzuli dituzte. Zaila izan da, baina European ez dago hemen bezainbeste kamishibai gaztelaniara eta euskara itzulita dituen liburutegirik. Kalitate handiko lana egin dute. Furunok lan handia egin du kamishibaiak zabaltzen, eta Yamagutxi liburutegia Nazioarteko Kamishibaien Elkartearen (Ikaja) sartzea lortu du. European elkartean dagoen liburutegi bakarra da. Liburutegian, hilabete behin, kamishibai irakurketa egiten da haurrentzat. Lanak interesa piztu du ikastetxeetan eta beste liburutegi batzuetan. Irungo liburutegiari, adibidez, 20 kamishibai utzi dizkiete. Furunok Iruñea utzi duen arren, sarearen bidez, kamishibaien arima japoniarra izaten jarraitu nahi du. Webcamarekin eta sarearen bidez, harremanetan jarraituko dugu, eta arima japoniarrak Iruñera bidaiatuko du. Kamishibaiak itzultzen jarraituko dugu.